

EKOLOGISTAK MARTXANEK HONDAKIN ORGANIKOA JASOTZEKO 5. KONTAINERRARI DAGOKIONEZ AURKEZTURIKO MOZIOA

ZIOEN AZALPENA:

Bizkaiko Foru Aldundiak, apirilaren 3ko 69/2012 Foru Dekretuaren bidez, Ingurumen Foru Sailak etxeko hondakinaren zati organikoaren gaikako bilketarako kontainerra, hau da, 5. kontainer pertsonalizatua, ezartzeko ematen dituen Diru-laguntzen Oinarri Arautzaileak eta Deialdia onartu ditu.

Hondakinen kudeaketa Hondakinen Europako Zuzentarauan (2008/98/CE) oinarritu behar da, eta honek hierarkia betetzera behartzen du: lehenik murriztu, ondoren berrerabili eta birziklatu eta, azkenik, erraustu eta isuri. **Era berean, araudi honek behartu egiten du hondakin organikoak bereizita jasotzera.**

Zentzu honetan, Europako Batzordeak, 2001eko otsailean, lan-dokumentu bat abiarazi zuen hondakin biodegradagarrien tratamendu biologikoaren inguruan, eta horren printzipio orokorren artean konpostajea edo gaika jasotako hondakin biodegradagarrien digestio anaerobikoa ren sustapena dago... konposta nekazaritza-onurarako edo hobekuntza ekologikorako erabiltzearekin batera. Garrantzitsua da jasotako materia organikoak ez bereiztea gordina eta prestatua, oso alde txikia baitago sistema bietatik lorturiko konpostaren kalitateen artean, eta, hala ere, bereizketa hau ez egiteak berebiziko garrantzia dauka biztanleriaren parte-hartze handia eta gaikako bilketa masiboa lortzeko.

Jakina da zaborraren zati organikoak etxeko hondakin guztien %38-40 osatzen duela, eta lekukotza hutseko birziklapenez haragoko ehunekoetara iritsi ahal izateko, beharrezkoa dela zaborraren osagai organikoan eragitea, gaika biltzea eta bilketa horrekin konpostajea egitea.

HORI DELA ETA, ZERA ERABAKI DUGU:

Lehenik.- Materia Organikoaren Gaikako Bilketa proiektu bat lantzea 5. kontainer pertsonalizatuaren bilketa bidez, udalerrian aplikatzeko.

Bigarrenik: Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 3ko 69/2012 Foru Dekretuaren arabera, lehenengo puntuko proiektua abiaraztea ahalbidetuko duen diru-laguntza eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiari.

Hirugarrenik: Orain arte ezagutu eta garaturiko esperientziak direla eta, eta horien emaitzen jakitun (Tolosaldeako Mankomunitatea Gipuzkoan, Kataluniako herri ugari), Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu beharreko diru-laguntzaren proiektua egitea berau gaikako bilketaren oinarri materia organikoa izanda egin dadin, gordina eta prestatua bereizi barik.

Laugarrenik: Akordio hauek biztanleriari oro har, Eusko Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari jakinaraztea.

BILBOKO UDALARI ZUZENDUTA

Diego Jauregui Batarrrita 30648533k NAN zenbakiarekin mozio hau aurkezten du

Ekologistak Martxanen izenean

Pilota kalea 5 -48005 (CIF-G95136115) 94-4790119 - bizkaiz@ekologistakmartxan.org

Bilbon, 2012ko Maiatzeren 25ean